

ihintza

2017.go Maiatza

97. zenbakia

XXXIV. urtea



ZER NON NOR

| | |
|---|----|
| Aurkezpena | 03 |
| Hezitzaileak mintzo | |
| Joxe Agustin Arrieta, GIZA DUINTASUNAREN ESKOLA | 04 |
| Joxe Erribengoa, EUSKARA ETA ZAKURRAK ETA HAURTZOAK | 06 |
| Praktika onak | |
| Alex Gaztañazpi, OLINPIADAK | 08 |
| Oroitzapenak | |
| Jon Lezamiz, KAMIOILARIA | 10 |
| Joxe Erribengoa, ZUTAZ OROITUZ | 11 |
| kontu kontari | |
| Manu Agirre, ARTEZANAN IKUSI ETA ENTZUNDAKOA | 13 |
| Gogoetak | |
| Pello Esnal, GURE ESNAERAK | 14 |
| Aitor Zulaika, HIL ARTE BIZIKO BAGINA | 15 |
| Inazio Acha, HANDIK ETA HEMENDIK | 17 |
| Ikasleen txokoa | |
| Erik Saraiva, MISTERIOZKO ETXEAREN ALTXORRA | 19 |
| Ainara Feng, SAIA ZAITEZ PERTSONAIAREN LEKUAN JARTZEN | 20 |
| Amaia Perez, XXI. MENDEAN | 21 |
| Iraia Gonzalez, SEXU INDARKERIA | 22 |
| Omenaldia - Poemak | |
| Jose Manuel Agirrezabalaga, PATXI EZKIAGARI OMENALDIA LEGORRETAN | 23 |
| Patxi Ezkiaga, URRUTIKO LUR HAUEK | 24 |
| Ekaitz eta Irati Goikoetxea, URRUTIKO LUR HAUEK - PATXI EZKIAGARI, BIHOTZEZ | 26 |

Argitalpen honen laguntzaileak:



IHINTZA – Salletarren aldizkaria. 1988. urtean sortua

Zuzendaritza eta erredakzioa: La Salle, 851 postakutxa, 20.080 – Donostia

L.G.: SS 485/84 ISSN: 1135-3945

Gertu inprimategia

Udaberrian murgildurik, Pazkotako Biziaren festan eta La Salleren ospakizunetan, eskuartean duzu Ihintza aldizkari honen zenbaki berria, 97.a.

Toki berezia du zenbaki honetan Patxi Ezkiaga poetaren azken poema-liburuak eta, liburuaren aurkezpena zela-eta, Legorretan egin zitzaion omenaldiak. Gure aldizkariak omenaldi haren oihartzuna izan nahi du, nolabait, eta omenaldian parte hartu.

Honela banatu ditugu zenbaki honetako idazkiak:

Hezitzaileak mintzo: Ziurtasun gabeko garaietan gertutasuna eta elkarrekin ibiltzearen beharra azpimarratzen du lehenengoak eta, bigarrenak, euskararen erabileraren –ezerabiltzearen– kontraesan mingotsak aipatzen bigarrenak.

Praktika onak: Gure Ikastetxeetan egiten diren Olinpiadak ditu mintzagai idazleak.

Oroitzapenetan bi lagun dira aipatuak: bata, erantzukizun berrietara deitua izan dena; bigarrena, zendu berria, mendia oso maite zuena da.

Kontu kontari: Artezanako elizan Xabier Egaña margolariaren lana ikusi eta hari entzundakoaz dihardu idazleak.

Gogoetak sailean, berriz, hiru idazki ageri dira: lehenengoa, aurreko zenbakian agertutakoaren jarraipena; bigarrena, aitonak zioena hausnarrean erabiliz norberaren uste sendo sakonak; eta hirugarrena, hiru gertakariren inguruko gogoeta zorrotzak.

Ikasleen txokoa: Sail honetan lau idazlan jaso ditugu, Irun, Eibar eta Beasaingo beste hainbat ikasleenak, LH 6tik hasi eta Batx 2 bitartekoak.

Omenaldia eta poemak: Hemen, aldizkariaren bukaeran, bildu ditugu Ezkiagari egindako omenaldiaren kronika modukoa, liburu berriko zenbait poema eta liburuaren izenburuaren inguruan burututako poema.

Ikasturtearen amaiera oparoa opa dizuegu.

Jose Manuel Agirrezabalaga



GIZA DUINTASUNAREN ESKOLA

Joxe Agustin ARRIETA

Sarritan paradoxa asko gertatzen zaizkigu: teknologiak urrutikoenak gerturatzen dizkigu eta gertukoenak urruntzen; edota ez da lehena iristen azkarren doana, nora doan dakiena baizik. Beti bezala testigantza, lekukotasuna oso garrantzitsua da. Bestela, askotan bezala, hitz hutsetan joaten zaigu gure jakintzaren indarra. Esperientzia oso beharrezkoa zaigu. Esperientziak “ikasi” eta “erakutsi”, ez da lan makala. Konpetentzien arloan lanean dihardugunean esperientziei beren tokia gehiago eman beharko genieke.

Anthony de Mellok bere liburu batean hala dio, jakin beharko genukeela ume batean, ikasle batean, gizakidun anaia eta arreba ikusten. Behin batean jakintsu batek galdetu omen zien ikasleei ea bazekiten noiz amaitzen zen gaua eta hasten eguna. Eta ikasleek esan omen zuten, animalia mota bat bestearekin bereizi egiten duzunean; beste ikasle batek zuhaitz mota bat besteen artean bereizten denean. Horrela ari zirela, gainerako ikasleek galdetu omen zioten: “Ondo da! Esaguzu hortaz zeuk noiz den eguna”. Eta jakintsuak erantzun omen zien: “Gizon bati aurpegira begiratu eta anaia ikusten duzunean, edo emakume bati aurpegira begiratu eta arreba ikusten duzunean, orduantxe. Hori egiteko gauza ez bazarete, horrek esan nahi du, den ordua delarik ere, zuentzat oraindik gaua dela”.

Parabolak eta metaforak utzita, zer egia handia den gertutasuna, elkartasuna (elkarrekin) eta solidaritatea (eskua botatzea) giltzarriak direla eguneroko irakaskuntzan.

1. Gertutasunaren pedagogia

Askotan erabili dugu izenburu hau: gertutasunaren eta maitasunaren pedagogia. Guztiok dakiguna da, baina beharrezkoa bizitzan eta gure hezkuntza munduan. Beraz, berriro esan beharko dugu, maitasuna ez da hartzea, ematea baizik. Ez da eskatzea, inolako interesik gabe besteei zoriontasuna eskaintzea baizik. Hor gabiltza gure eguneroko hezkuntza jardunean. Zenbat alditan ez ote dugu eredu eta adibide bezala edo jarraibiderik ederrena bezala jartzen, gure amek egin eta ematen dutena. Eta hauxe da benetako maitasunaren eta gertutasunaren pedagogia. Haiek, gauzak eman baino gehiago, eurak ematen dira.

Zenbat aldiz ez ote ditugu horrelako konparaketak egin: etxea, familia, eskolaren aurretik dagoen heziketa-habia dela. Azkenean familia baita gizartearen oinarria. Izan ere, familia gizarte txiki bat baita eta gizartea, berriz, familia handi bat.

Hortaz, gu geu, zu zeu izan zaitez bat bera beti, aldi batean zein bestean:

Tinko geure hitzetan, seguru geure pentsaeran eta laneko arduran.

Zintzo geure ekintzetan.

Lasai eta bare geure konfiantzan, egiten ari garena elkar-lanean ari baikara egiten.

Gaurko eguna bizi, bete-bete bizi, izan baikorra, egizu on dena eta ez gehiegi arduratu biharkoaz. Giltzarria, bidea egitea da. Eta bide horretan lagun izatea. Lagun arduratsua eta heldua. Gure ikasleentzat eredu. A ze hordago latza! Ondo dago hori jakitea eta bere horretan ahalegintzea!



2. Elkarrekin hezkuntzan.

Aspaldiko leloa dugu bizitzako lehen eskola norberaren etxea dela eta lehen hezitzaile garrantzitsuenak gurasoak direla. Elkarrekin ibiltze hau guztiz beharrezkoa dugu: etxea eta eskola, gurasoak eta irakasleak. Funtzio eta betebeharrak desberdinak, baina gure haur eta gaztetxoentzat zubi beharrezkoa. Zein garrantzitsu baloreak, proiektua eta goi-asmoak trukaketa garbian gauzatzea eta bultzatzea.

XXI. mendeko erronkak handiak dira. Nahitaezkoa dugu baterakuntza hori: konfiantza-erak gainditu, elkar formazioa indartu, eskolako

langintzan babesa eta laguntza izan. Arrisku bat badugu: egon zale izatea, esan nahi dut instalatzea, habi goxo batean gelditzeko arriskua, hezkuntza ibilian egiten eta sendotzen den zerbait den bitartean: bidekari eta bidean, beti emanak, beti ematen, beti bila...; noski, kontuz eta erre gabe ibili beharrekoa. Badakit denok ikastetxean arduraz josita gabiltzala eta bizi behar dugula guzti hau pertsona helduak bezala; baina ardurak ezin ditugu zailtasun eta kezka bihurtu, garrantzitsua baitugu elkarrekiko konfiantza, lan-taldea eta ilusioa; noski, inprobisaziorik gabe eta etorkizuna neurri batean bermatuz. Lankidetzak berri honetan buru-belarri sartu gara: leialtasuna, berrikuntza eta elkarrekiko langintza.

Eskola ez da egoteko eta eraikuntza soil bat, bidean ibiltzeko eta hezkuntza elkarte bizia baizik. Ikaskuntza eta irakaskuntza testuinguru berri baten martxan ari gara jartzen. Egia da indibidualistak garela, baina, aldi berean, gizartekoak. Beste batzuekin bizitzeko, bizikide izateko jaioak gara. Ezaugarri hau garrantzitsua da eta ezin gara bizi besteen laguntzarik gabe. Eta lana da ingurukoekin harremanetan jartzen gaituena eta, elkarlanean, guztiok bizitzeko beharrezkoa izan dezagun laguntzen digun bide nagusienetarikoa. Elkarrekin, elkartasunean eta elkartean.



3. Ziurtasun gabeko garaiak

Askotan esaten dugu geure giza bizitzak zentzuaren eta norabidearen ibilbidea ezagutu behar duela. Bestela, zertan ari gara? Giza bizitza gozatzeko balio ez duen pedagogia, zertarako beharko genuke? Eskola esparrutik mundu zabalera joan nahi dugu. Gizartea bideratu, aurrera bultzatu eta zentzua aurkitu.

Hitz txukunetan eroso gelditu ohi gara, baina nola egiaztatu eta bultzatu gure egunero-kotasunean? Errealitatea beti gordina da eta bere egia erakusten du. Une historiko garrantzitsu batean

aurkitzen gara. Egia da batzuetan gure egitekoa eta pedagogiaren emaitzak ez direla bikainak izaten, gazi-gezak tarteka. Orduan, zer egin? Ezin duguna dena uztea da, berrikuntza bidea baztertzea eta etsipenez eta frustrazioan erortzea.

Gure ikastetxearen eta munduko irakasleen eginkizuna lan luzea da, baina baita bikaina eta merezi duena ere. Egin beharko genukeena hau da: bizitzan gatazkak sortzen zaizkigunean, garai-aldi ilunak datozkigunean eta, ondorioz, axolarik eza edo maitasunik eza gailentzen zaigunean, edo erremina, iluntasuna eta gogo-eza sartzen zaigunean, garrantzitsuena bihotza irekitzea da. Bihotzez, bihotzetik eta bihotzera aurrera egitea.

XXI. mendeko bigarren hamarraldian goaz aurrera. Erronka zailak eta latzak ditugu. Oraindik egitekoa ugaria da. Beharrezkoa izango dugu baikortasuneko jarrera, baina bereziki itxaropenaren beharra dugu. Ea, itxaropenezko garai-aldi bihurtzen dugun gure oraina. Bide berriak eraikitzen ari gara. Batzuetan guk nahi haina fruitu ez ikusi arren, aurrera joan beharra daukagu: hazi, hezi, bizi eta eraiki. Ematearen pedagogia, entregaren abentura eta itxaropenezko espiritua giltzarri ditugu gure hezkuntza munduan.



EUSKARA ETA ZAKURRAK ETA HAURTZOAK

Joxe ERZIBENGOA

Nork esan du euskara galtzeko arriskuan dagoela? Litekeena da, baina badira motiboak beste era batez pentsatzeko ere. Alegia, nor ausartuko da esaten zakurrak ere desagertuko direla? Bada inor? Orduan, ez kezkatu, euskara ere biziko da. Ez al duzu uste, adiskide hori? Pentsatuko duzu burutik eginda nagoela eta agian ez zaizu arrazoirik faltako. Izan ere, askotan horretaz pentsatzera eraman nau nire eguneroko bizitzan ikusitakoak, bai, eguneroko bizitzan ikusitakoak. Ikus dezagun.

Zu bazoaz mendian zehar ibilaldira bat egiten. Berdin dit nora zoazen. Joan zaitezke Txindokira, joan zaitezke Aralarra, joan zaitezke Gorbeia, joan zaitezke..., etxe ondoan dagoen muino batera. Bakarrik zoaz baina, halako batean, talde bat ikusten duzu zure gibeletik datorrela. Sei edo zazpi izan daitezke. Pentsatu dute eguraldi ederra dela mendian zehar itzuli bat egiteko, eta erabaki hori hartu dute. Jakina, bakoitzak bere zakurra apaindu du. Bai, apaindu egiten dira zakurrak. Hotz bada, gainetik zapi bat jartzen diote, bero bada deus ez, baina kate edo uhal edo hede dotore bat lepotik zintzilikatzen diote. Jada preparatuta daude. Mendira atera daitezke jabeekin batera.

Zuk gibelerara begiratzen duzu ateratzen duten zalapartarekin harrিতuta. Badatoz lanari buruz hitz egiten, badatoz andreak eta gizonak hau eta bestea deliberatu dutela esaten, igandean hau edo bestea egingo dutela. Izan daiteke afari bat egingo dutela, izan daiteke bazkari bat egingo dutela Mugaritzen ezkontzaren urteurrena ospatu nahi dutelako, izan daiteke lantegiko nagusia putakume galanta dela, irabazten duenean ez duelako banatzen delako irabazia langileen artean eta galerak dituenen, aldiz, denen artean ordainarazten dituela, izan daiteke hurrengo oporretan Vignemalera joateko asmoa dutela eta horretarako kranpoiak erosiko dituztela, izan daiteke..., hamaika gauza. Kontua da jo eta ke berbetan datozela zapaltzen ari diren kreazioa bera tsundituta uzten dutelarik. Erdaraz mintzatzen datoz, noski. Noizean behin, euskañola erabiltzen dute inguruneari jakinarazteko zerbait badakitela euskaraz ere, baina eleganteagoa dela denak Cervantesek erabili zuen hizkuntza praktikatzeari, eta ez Lauxetak edo Lizardik edo Etxeparek edo

Axularrek edo Atxagak edo Sarrionandiak erabili zutena edo erabiltzen dutena orain.

Kontua da, baita ere, haiek ez doazela bakarrik, haien zakurrak ere haiekin batera doaz. Zakurrek ez dituzte haien katramilak eta eztabaidak ulertzen, baina bai euskaraz entzunez gero, horregatik aspertzen hasten direnean zeremonia hartatik alde egiten hasten dira. Amigo! Orduan, gure kalakari ospetsu haiek, Cervantesen hizkuntza bolo-bolo darabiltenak erregistroa aldatu eta euskaraz hasten zaie zakurrei: *Txo, hator hona! Pintxo, geldi! Lur, entzun! Txuri, zatoz! Izar, ez al duzu entzun, zatoz!...* Azkenean, zakurrak ongi ulertu eta gero, jabeek esandakoa bereganatuz kasu ematen die, eta batera biltzen dira nagusiengana.



Hara, esaten dut nik. Beraien artean erdaraz ari dituk eta zakurrekin euskaraz, ederra kontua, pentsatzen dut. Eta gero, Joxe hago lasai, gizakiok euskara baztertzen badiagu ere, gure etxeetako zakurrek hitz egingo ditek edo ulertuko ditek sikiera, euskara salbatuko duk, zakurrak salbatuko diren bezala meteorito batek ez baditu akabatzen. Beraz, lasai, Mari Karmen Garmendia, edo Baztarrika, edo Patxi Ezkiaga, zakurrendako ikastaroak antolatuko ditiagu aurrerantzean, leialak dituk eta esandakoa egiten ditek, nahiz eta jabe aluxka batzuk izan aldamenen. Eutsi, Pintxo! Hirekin bat natorrek.

Beste argazki xeble bat ere ikusi dut gure kaleetan, eta ziur naiz zuek ere, nik bezala, ikusi duzuela behin edo behin erosketak edo manatu bat edo beste egitera etxetik atera eta kalean barrena joan zaretenean. Zera da:

Zakurrei esker, euskara salbatuko dela esan dudan bezala esan dezaket umeak ume diren bitartean euskara salbatuko dela era berean, zeren gero, zakurrak akabatu eta gero, eta umeak ume izateari uzten diotenean, euskarak ere berea egingo baitu beste inork konpontzen ez badu, nik uste. Zergatik esaten dudan hau, bada, begira:

Bi emakume gazte-gazte, hogeita zortzi bat urtekoak, doaz elkarrekin Urkizu edo Xenpelar edo Moiuia plazetako espaloietatik beren umeak sehaskan daramatzatela. Beren kontuez doaz berbetan. Batak besteari begiratzen dio eta, noizean behin, aitzinera begiratzen dute aurretik datozenekin talkarik ez egiteko. Biziki pozik doazela ematen du. Irribarrea aurpegian eta eskuak dantzan esan nahi dutena argiago adierazteko. Orain arte den-dena ongi. Merezki du pozik joatea goizeko ordu horretan, hamaiketan gutxi gorabehera. Eguzkiak plazak epeltzen ditu, eta jendearen joan-etorrian sumatzen da aspaldian zeudela izar erregearen izpien zain.

Bi emakume gazteok Calderonen hizkuntza erabiltzen doaz. Ongi menderatzen dute. Arin, solte eta gelditu gabe egiten dute berbetan. Ez dute inolako trabarik aurkitzen nahi dutena esateko unean. Ematen du beren hizkuntza dela, hizkuntza propioa eta ez bakarrik Calderonena edo Lope de Vegarena. Alabaina, umeak esnatu direnean kezkatu dira pixka bat. Zer gertatzen zaien arduratzen dira

eta euskaraz hasten zaizkie galdezka: *Ene pottoko, zer duzu orain?* edo *Hasi al zara berriro?* edo *Txiki, zer duzu, hotza?* edo *Nekanetxo nirea, tori, tori zure txupea, erori egin zaizu, ezta?...*, hala biak isildu diren arte. Ikusten? Amek Calderon eta Lope de Vega hartu dute eredutzat eta umeak, berriz, Xenpelar edo Etxahun edo Zarate edo Kintana. Nor dabilela zuzen uste duzu? Umeek euskaraz entzun eta ulertu dutela dirudi, ulertzen dutela, bai, eta badirudi amek hori nahi dutela, beraiek Calderonen eta Lope de Vegaren berbak erabili arren.

Kontua da hau guztiau kalean zoazenean gertatzen dela eta ez dakit nongo instantziatik esaten diguten gogoak nazkatu arte, euskaraz hitz egin behar dela, euskararen erabilera dela kontua, kontu larria gainera. Baina, ez. Ama gazteek nahiago dute Calderon eta Lope de Vega beraien artean mintzatzeko, Uribe edo Josune edo Amuriza edo Urretabizkaia edo Elorriaga bainoago.

Lasai, Joxe. Etorriko dituk Senegaldik edo Krakobiatik edo Ukrainatik edo Tokiotik edo Riotik eta haien seme-alabek euskaraz egingo ditek, lasai. Orduan, ez ditiagu hainbeste aldiz errepikatu beharko euskara erabili behar diagula instantzia guztietan; orduan, haiek jasoko ditek euskara goien gradora Etxepareri kasu emanez.

Ongi. Ederki. Ontsa. Poztuko nauk, txo!



OLINPIADAK

Alex GAZTAÑAZPI

Gaur nahiko petralduta nabil eta egia borobil bat islatu nahi dut orri zuri honen lehen lerroetan; ez dut inoren kontzientzia urratu nahi, ez dut nire inguruan etsipena sortzeko asmorik, baina barruak askatu beharrean sentitzen dut neure burua: NBOri, Nazioarteko Batzorde Olinpikoari, arrazoia kendu beharrean nago. Izan ere, joko olinpikoak ez dira lau urtetik behin ospatzen, azken jokoak ez ziren Rion izan, eta hurrengoak ez dira Tokion izango, 1980an ez ziren Moskun bakarrik jokatu. Zarautzen, Donostian eta beste hainbat tokietan, urteak joan eta urteak etorri, eta Salletarrok urtero ospatzen ditugu Olinpiadak. Azkenekoak Zarautzen eta Donostian, gutxienez, izan dira, eta hurrengoak ez dira 2020an izango, datorren urtean baizik. Neguko Olinpiadak ez dira existitzen, gezurra dira, beti maiatzean ospatu ohi dira, La Salle asteko ospakizunen barruan.

Gure Olinpiadetan berdin zaizkigu jatorriak, herrialdeak eta estatuak, guk ortzadarrari begiratzuz antolatzen ditugu taldeak, eta horrela Berdeak, Gorriak, Urdinak eta Txuriak sortzen ditugu. Lau talde erraldoi eta anitzak, non ikasle bakoitzarentzako tokia dagoen, guztiok gara olinpikoak edo paralinpikoak (berdin du) kolore bakoitzaren itzalpean ikasle guztiak senidetuak daude.

Olinpiada xelebre hauen jatorria ezin izango dugu Wikipedia edo CD-ROM Espezializatu baten aurkitu, hauen Pierre de Coubertin nor izan zen jakitea lan antzua eta astuna izan liteke, agian ere ez du garrantzi gehiegirik izango. Baina memoriak ez banau engainatzeen 30 urtetik gora izango da, Zarautzen, behintzat, ospatzen direla. Tartean Golfoko bi gerrak eta Malvinasekoak pairatu ditugu, baina olinpiadok ez dute etenaldirik ezagutu. Oroitzapenean ditut oraindik nola neure ikasle garaiko Miguel Angel, Jose Ignacio, Benito, Olga, Lourdes eta Juan Angel jarduten ginen eskubaloian, "eskudoetara", luzera-jauzietan, erreleboka ... bakoitzak bere kolorearentzat ahalik eta puntu

gehiago pilatu nahian, geure burua Carl Lewis bezala sentitu nahirik. Urteak aurrera jo dute eta oraintxe ikusten ditut patioan Maren, Xuban eta Xabat, Iraide, Gorane eta Unax bere kolorea defenditu nahirik, epailearen aurrean sututa bere taldea den Gorriarentzat puntu eske. Hortxe dabilta denak emanda, azari buztanean, lokots bilketan, izarra eta elefante lasterketan. Hauek ere, gu ibili ginen moduan, irabazlearen loria dastatu nahian.

Urteak aurrera jo dute, mendez aldatu gara, izen batzuk desagertzeko zorian daude, beste izen batzuk janzten dituzte gaur gure zerrendak, garai bateko kotoizko elastiko eta galtza motxak kirol arropan bilakatu dira, jokoak jolas bihurtu, baina Olinpiadon muinak berdin jarraitzen du: Elkarrekin ospatu. La Salle asteari dagokion itxiera eman.



Guztiok ikasi genuen joko olinpikoen lelo hura: "Citius, Altius, Fortius" (Hezkuntza legeen aldaketei esker, latina ikasi ez zenutenontzat: azkarrago, gorago, gogorrago). Leloa bururatu zitzaion Henri Didon dominikoak ez zuen esan nahi kosta ala kosta irabazi beharrean gaudenik, errekorrak behin eta berriz apurtu, txikitu behar direnik, ezin dugu hainbeste sinplifikatu leloa. Etengabeko hobekuntzaz ari zen dominikoa, kirola garapen moralerako urrats bezala ulertzen zuen, giza perfekziorako tresna bezala. Badirudi Didonek gure 2017ko leloa zuela buruan: "Begira ezazu harantzago" Ez zaitetz geratu, soilik, kirolari horrek egin duen denborarekin edo jabalina noraino bota duen. Kontuan har dezagun hori lortzeko, domina

irabazi ala ez, zenbat ahalegin egin behar izan dituen, zenbat lagun eta senideen hauspoa jaso duen. Zenbat kezka, bakardade eta porrot sentitu dituen dagoen tokira iristeko. Nori etorriko ote zaizkion begietara malkoak neska edo mutil hori olinpiadetan parte hartzen ikustean. Gogoan ditut Maialen Chourrauten aitaren hitzak, alabak golkotik domina zintzilikatu zuenean, zenbatetan izan ote da Maialenen alaba osaba, izeba edo lehengusu baten besoetan ama entrenatzen zegoen bitartean? Podiumen goialdera Maialen igo zen, baina guk harantzago begiratzen ikasi dugu.

Salletar Olinpiadetan ere badakigu harantzago begiratzen, gure taldeari eta hurkoari animatzeko gaitasuna dugu, lagunaren porrotak mina ematen digu eta bere garaipenak alaitu. Guztiok dute irabazteko grina eta asmoa, baina elkartzen gaituen kateak, sailkapeneko datu hotzak baino indar gehiago du. Oraindik, koloreak kolore, eta taldeak talde, txistuka jaisten dute eskolako aldapa, besarkatuta sartzen dira ikasleak etxera eramango dituen autobusera. Gainera, hainbat urteko ibilbidean oraindik ere ez da doping kasu bakar bat ere ezagutu. Iruzurrek ez dute lekurik gurean. Froga tartean banatzen den kakao eta opilak sasoitzen ditu ikasleak, lagunaren animoak eta etxetik ekarritako ilusio eta irribarreak. Gurasoren bat kalean topatuz gero olinpiadak nork irabazi dituen galdetzen du, eta etxeko semea garaileen artean bada, korrika doa azokara postre berezi bat erostera garaipena ospatzeko. Horrelakoetan nork behar du dopina?

Bada kirolari olinpiko guztietatik nabarmendu nahi nukeen bat: Dick Fosbury estatubatuarra. Honek 1978ko Jokoetan, Mexikon, ordurarte inork

egin ez zuen zerbait egitera ausartu zen: altuera jauzian, bizkarrez egin salto. Ertzat hartu zuten, berak egindakoa ez zen “normala”, “araua” apurtzen zuen, iraultza ekarri zuen, desberdina zen, artaldetik ateratzen zen. Erabaki xume batekin hankaz gora jarri zuen ordurarte ikusitako guztia. Baina horrela urrezko domina lepotik behera zintzilikatzea lortu zuen; froga honen errekorra ezarriz. Geroztik, belaunaldiz belaunaldi, jauzilari guztiek Fosbury Flop deritzon teknika erabiltzen dute froga honi aurre egiteko. Berak ekarri zuen berrikuntza, berak apurtu zuen aurreko guztia, bera izan zen berritzailea. Fosburyren jauzi honek zentzu guztia ematen dio joko olinpikoen leloaren esanahiari, ez zaitez konformatu, saiatu hobetzen, norberaren burua da lagun edo etsirik gogorrena. Bere buruan fede osoa zuen, aurretik ongi eta zorrotz entrenatu eta landutako guztiak etekinak eman zizkion. Gu ere horretan gabilta, Fosburyren moduan, berritzaileak izan nahian, ikastetxeetan olinpiadak antolatuz, “araua” apurtzen...

Emil Zatopek, Bob Beamon, Michael Phelps, Carolina Marin, Serguéi Bubka... guztiok ditugu gogoan, burua burko gainean jartzen genuenean beraien modukoak izan nahi genuela egiten genuen amets behin baino gehiagotan, Adidas edo Nikeko txandal dotorea jantzi eta Los Angeleseko estadioan txalo zaparrada artean merezitako ongi etorria egingo zigutela. Ametsak amets, horiek ez, baina beste batzuk bete zaizkigu eta inoiz amestera ausartu ez garena ere lortu dugu. Salletar olinpiko asko ez dira ibiliko estadioz estadio eta olinpiadaz olinpiada baina txikitako amets xume eta goxoa aseta haziko dira asko eta asko: Joko olinpiko batzuetan parte hartzea.



KAMIOILARIA

Jose Romani, esker onez

Jon LEZAMIZ

Madrileko topaketa batean 2017ko apirilaren 2an, igande eguerdian, Jose Roman Perezek aitortu zuen txikitan kamioilaria izan nahi zuela. Bere agintaldia, ARLEP Barrutiko Ikuslari-ardura, irailaren batean hasiko du, baina kamioia, ARLEP Barrutia, alegia, gidatzen hasia da jada. Bistan da. Penintsularen geografia osoan zehar dabil, han hemenka, bilerak izaten eta, bide batez, bere garraiatze taldekideak aukeratzen. Ibilgailuaren gomak galanki ari da erretzen. Badago erre-usaina. Gomarena, jakina!

Arestian aipaturiko datan kamioilariaren metafora airean harrapatu eta testu honetako lerroetara jaitsarazi nahi dut, ene aburuz, metafora polita baita eta bizi dugun garaietarako egokia. Ni neu ere, ume mukitsua nintzela, kamioilaria izan gura nuen. “Kamioneroa” esaten nuen harro handitzerakoan zer izango nintzen galdetzen zidatenean. Eta aski ez bazen, nire anaia batek ingeniari izan nahi zuela –eta hala izan da– esatean, nik gehitzen nuen: “Zu, ordea, jaunxkila kakaztua!”.

Nonbait aitaren lehen ogibideari heldu nahi nion eta amari behin eta berriro eskatzen nion praka luzeak erosteko, kamioilariaren antzera. Zer esanik ez dago, sasoi haietan umeak praka motzetan ibiltzen ginen nahiz uda nahiz negu izan. Niretzat zangoak airean eramatea jaunxkila kakaztuen moda omen zen.

Nire familiaren koadro batean nire aitaren argazki bat dago. Non nire aita, g a z t e - g a z t e , kamioitzar baten mutur ondoan azaltzen den. Suitzan erositako



Saurer bat zen. Hura zen kamioia, hura! Gaur egun ia ia modan dauden “megatruck” horien pareko. Azken hilabeteetan Gipuzkoatik horrelako megakamioi batzuek zeharkatu dute gure herrialdea pieza erraldoi batzuk garraiatuz. Niretzat –aurten Goierri bizi naizelarik– kasurik hurbilenak pieza ikaragarri handi bat zeraman Zangozako enpresa batera. Pieza hori Japoniatik Pasaiaiko portura ekarri

zuten itsasoz eta gero, megakamioi batean, Nafarrorantz eraman. Etzegarateko mendate ondoko baskulan, Alaska hoteleko pisu-kontrol ondoan alegia, Nafarroako errepideetan zehar ibiltzeko baimena lortu arte birritan ikusi nuen aparkatuta megakamioi hura. Batzuk iritzietan harriturik azaltzen ziren, espero baino denbora luzeagoan geldirik egon behar izan baitzuen, baimenaren ditzosozko sinadura apetatsu baten kontua zelakoan.

Egunkarietan garraiatze honek erakarri duen logistika begi bistan geratu da, alabaina. Horregatik burokrazia izan zitekeen argudioa bertan behera geratu zen. Garraio horren igarotzea ahalbideratzeko aldaketa asko egin behar izan ziren ibilbide osoan, ez-ohiko eta neurritz kanpoko pieza garraiatzekoak zirelako. Zenbait tunel saihestu behar izan ziren, eta aldi berean, besteak beste, alboko bide alternatiboak prestatu, errepide ondoko bide-seinaleak behinik behin kendu, hesi-babesgarriak edo biondak tokiz aldatu, azken urteotan ugaldtu zaizkigun biribilguneak egokitu eta, zenbaitetan, norabide debekatuan zeharkatzeko neurriak hartu ...

Beste aldetik, bide-mapa zehatza izateko eta logistika erabat borobildua izateko, oso kontutan hartu behar izan zen “timing-a” edo ordutegia. Zirkulazioa ahalik gutxien oztopatu behar zenez, gaueko orduak izan ziren lehenetsiak.

Behiala ez genuen, agian, horrelako egiturarik garraiatu behar izan. Baina garapenaren fase aldakor eta azkar hauetan tradizioan izan dugun jakinduria motz geratu zaigu. Aldez aurretik programaturik ez zeuden egoeren aurrean usu aurkitzen gara eta betiko bideetatik, ezer gertatu izan ez balitz bezala, joatea pentsatzen badugu, gureak egin du. Ez dago igarotzerik. Eta oztopoak oztopo, enbarazurik gordinena ez datza tunel, errepide, ... eta bide-seinaletan; buruan, betiko argudio eta lasaitasunerako jokaera alfer nagietan baizik.

Bai, akaso, gure bizitza animatu eta gobernatzeko egundoko egitura deskomunalak eta eskergak diseinatzen ari gara. Uste izan dugu, orain arteko bizitza positibo samarra izan dela eta ez dugula organigrama zabal eta korapilatsuen beharrik

izan. Geneukan ereduari hainbeste eranskin, prozesu, zatikatze, ardura banaketa jarri behar ote dizkiogu? Bai, ez dago zalantzarik. Pieza ikaragarri handia sortu dugu. Hura garraiatzeko trailer edo atoi berezia diseinatu behar izan dugu. Orain pertsona asko ari gara organigrama horretan sartzen. Ez dakit ondo dagoen, baina ez dago atzera bueltarik, agidanez.

Eta, areago, megakamioiaren zatirik garrantzikoena falta zaigu. Pieza bera eta pieza eramateko atoa badauzkagu. Baina hurrengo ibilbide-faseetan zerk eramango du egitura berri hori aurrera? Zein da garraio horren traktorea? Non aurkitu traktorearen motorea elikatzeke erregaia?

Jose Roman, kamioilariaren sena duzunez, ez dizugu narrazioa luzatu behar. Hala ere ezin da takografoaren irakurketa ahantzi behar –hor daude ertzainak, erdi ezkutu eta zelatari, isuna jartzeko irrikatan–. Bertan izen asko erregistratu omen dira, antza denez, orduak, atsedanak, etenak, etapak, beste abarrekin batera. Baina soilik hiru izen, soilik, azpimarratu nahi nituzke kontakizun honetan. Lehendabizi, aitarekin *Azkar* enpresako kamioi hartan, Bartzelonarako joan-etorri haietan oinarrizko bizi-logistika hezurmamitu zenuenez, Roman, zure aitaren izena aipatzen dut. Bigarrenik, amaz

gogoratu gura dut. Bera, Petra, beti etxean, zain, aiduru, amoltsu eta apal etxeko supazterrean. Berarekin bidaietako nekeak eta ajeak aienatzen ziren, eguzki goiztiar, lotsatiaren galda herabetietan bide elurtuak urtzen diren antzera. Eta, azkenik, zure anaia txikia, Raul. Hor dago oldozkor, neurritsu eta beti eskua luzatzeko prest. Orain arteko etapatan kopilotu izan dena eta, hemendik aitzina, eskuderia baten nagusia dena: bertan dauzka prest ongi ezagutzen dituzunak: koinata Jaione, Maialen, zure besoetako haurra, Iñigo eta Uxue ilobak.

Eta, besterik gabe, Jose Roman, garraiolari, bidai on!



ZUTAZ OROITUZ

Joxe ERZIBENGOA

Pepe, zurekin gogoratu nahi dut une honetan. Beharbada, zein den horretarako arrazoiak galdetuko zenidake zauden zorioneko leku horretatik, bada arrazoi bat edo beste ematen saiatuko naiz. Jakizu ez ditudala hitz potoloak, lodiak edo potenteak (egun erabiltzen den hitza erabiltzearen) usatuko, zuk ez zenituen maite eta ezta nik ere, nahiz eta batzuetan, nahita edo nahi gabe, bat edo beste usatu gure burua goratze aldera.

Orain gutxi alde egin duzu lur honetatik zuk nahi gabe. Izango zenituen gauzak pentsatzeko, egiteko edo gomendatzeko, baina Goikoak deitu dizu berriro, oraingoan betiko. Hala bada edo hala izaten denean zer egin? Amore eman eta Haren eskuetan den-dena laga. Hori egin duzu zeuk. Tira, ba ongi.

Beste batean, Bilbon irakasten ari zinen Ikastetxetik Eibarrera alde egin zenuen orduan ere zuk nahi gabe. Han ere izango zenituen gauzak pentsatzeko, egiteko eta gomendatzeko, baina

Zuzendariak, ez dio axolik nork, deitu zizun eta zuk baietz esan zenion. Beti bezala zintzo demonio jokatu zinen. Kontua da urte hartan karanbola batzuk izan zirela eta talka txiki horietako batek neu ukitu ninduela. Bai. Hala izan zen. Eibarren liskarren bat izan zen, nonbait. Ondorioz Ikuslariak fitxak mugitu behar izan zituen: Ni Eskolastikadutik Bilbora, zu Bilbotik Eibarrera eta Bilbon lehenengo mailan zegoen Jose Maria Bourdet hirugarren mailara, zeuk utzitako mailara hain zuzen. Gogoratzen? Orduan hasi nuen benetako irakaskuntza Bilboko Ikastetxean edo Eskolan. Ez dakit gertakizun hark zer suposatu zizun, ezta Bourdeti zer suposatu zion, dakidana da niri bokazio baten lekua eman zidatela gauetik egunera, beraz, niri harridura suposatu zidan, zergatik ukatu.

Beste kontu bat ere badaukat zutaz oroitzeko eta ondorengo hau da. Zu mendizale porrokatua zinen, ni bezala. Oso gutxitan egin genuen topo mendian. Zu Aragoiko Pirineoetan ibiltzen zinenean ni

Nafarroakoetan ibiltzen nintzen edo Erkidegoko mendietan, gero hasi nintzen zure paradisu haietara joaten, eta arrazoi zenuen hura zoragarria zela esaten zenuenean. Sinetsi nizun dena eta hara joaten hasi nintzen beste lagun batzuekin. Zuk beste ez dakit baina zuk bezala nik ere pentsatu nuen merezi zuela haraino joatea, hango gailurrak zapaltzera, hango haranetan gozatzera, hango herri txikietan bertakoen kultura pixka bat jasotzera. Izan ere, mendira joaten garenean edo naizenean ez baita soilik tontorrean aitagure bat errezatzeko edo ez dakit zein argazki xelebre bat egiteko, ez. Haraino, erpinerraino, igotzen garenean edo naizenean gauza anitz ikusten gozaten eta miresten ditugu. Zuk ongi dakizu hori, gainera, oso zail da transmititzen besteei nork bere barruan sentitzen duena, eta nekez eman liezaioke norbaiti izan dituen motibazioen arrazoia.

Esan zenidan ba behin Toloñora igotzeko biderik zuzenena, ederrena eta liluragarriena Berganzotik hasten den bidea zela, eta nik berriro sinetsi nizun, zeren zure hitzak ez baitzuen iruzurrik izaten eta horrek oso du balio handia niretzat. Bada, esan bezala, eguna aukeratu nuen zure esana betetzeko. Buradongo Gatzagara joan nintzen, hobeto esan, eraman ninduten Haritzetara zihoazen batzuek. Herrixka hartatik abiatu nintzen ttipi-ttapa, oinez, Berganzoraino, hots, zu jaio zinen herrixkaraino. Hiruzpalau kilometro ziren oinez sekula ezagutu ez nuen paisaia haietatik: zoragarria! Haranak, mendiak, gazteluak, arranoak, saiak, bestelako txori abeslariak, etxe dotoreak eta arruntak, basoak eta bidexkak. Zein ote da bidea, galdetzen nion nire buruari. Pixka bat pentsatu eta gero, zure herrixkara joatea erabaki nuen. Ematen zuen ez zela inor bizi han. Kanean gora eta behera ibili bai, baina arimarik ez, halako batean emakume batek etxeko balkoitik *buenos días* esan zidan arte.

Andere haren parera joan nintzen eta naturaltasunez hizketan hasi ginen. Nire asmoa azaldu nion eta berak jakinarazi zidan nor zen. Bai ustekabe galanta, Carmen zuela izena esan zidan. Iloba bat bazuela Haritzetan eta haren izena Pepe zela. Noren aldetik etorria nintzen esan nionean etxeko leihoak ez ezik zeruak ere zabaldu zitzaizkigun bioi. Alaba bat Zaragozan ikasten zuela, zu sarritan joaten zinela bisitan eta harreman estuak zenituztela esan zidan ia dena hitz bakarria bailitzan. Ni lasaitu nintzen eta hark esandako detaileak gogoan hartuta nire xedea betetzera abiatu nintzen. Arrazoi zuen bai Carmenek eta baita zuk ere.

Aldapa kozkor bat igo behar izan nuen hasieran, baina astiro-astiro basoan sartu nintzen, honela joan nintzen denbora luze batean. Artadiak, pagadiak, hariztiak eta bestelako zuhaitz mota asko ikusi nituen. Lurraren kolorea horikara zen eta udazkena baitzen orbela zen handik barrena ibiltzeko alfonbra edo lurreko tapiza. Nik ez nekien ehiztarien garaia zenik, horregatik harri eta zur gelditu nintzen bidearen goialdean dozenaka basurdezalerekin topo egiten hasi nintzenean, nork bere eskupetarekin eta zakurrarekin. Oinez ni bakarrik, haiek guztiak geldigeldirik toki estrategikoetan. Nik agurtu bai baina haiek ezta hitz bat ere. Gero jakin nuen edozein soinu arrarok basurdea uxa zezakeela eta haiek isililik egoten zirela derrigorrez. Arrisku-leku hartatik iragan nintzen eta mendiko usaimena erabiliz egokiena iruditu zitzaidan bide berdeari ekin nion. Hau guztiau email batean esan nizun, baina orain gogoratu nahi izan dut berriz zutaz oroitzen ari naizenez. Azkenean, heldu nintzen behiak eta zaldiak lasai asko bazkatzen duten goi lautadara. Nik ez nuen halakorik espero, baina zuk arrazoi zenuen, berriro diotsut, leku hura elegantea da. Han bildu nituen pagozikak, han zapaldu nituen inoiz zapaldu gabeko bizpahiru tontor eta han zutaz oroitu nintzen, orain bezala. Milesker!



ARTEZANAN IKUSI ETA ENTZUNDAKOA

Manu AGIRRE

Urtarrilak 27, ostirala, On Bosko eguna ospatu genuen La Salle Berrozpen eta ohi bezala txangoa irakasleok. Artezanako elizara aurten. Bertan Xabi Egaña lankide ohia paretak margotzen ari da. Dena amaituta ez bazeukan ere, hiru herenak bai. Egindakoa gustatuz gain, atsegina izan zitzaidan berari entzutea. Orduan ulertutakoetatik jo ninduten gauzatxo batzuk doaz hemen.



Lankidea lan esanguratsu bat aurrera eramaten. Pareta huts batzuk bete eta egindako horrek ikuslearengan eragin. Hausnarketa eta gogoeta handi bat: liburuak irakurri, elizak ikusi, zientoka bozeto zirriborro egin, zortzi karpeta esan duenez, ... Hasi margotzen eta egindakoarekin gustura ez batzuetan eta amorrua, haserrea... soluzioarekin eman arte. Jende xumeari entzun eta baita erudituei ere. Kontrastatu. Urteak daramatza honetan.

Tokia eta espazioa. Leku bateko paretak margotu behar ditu Xabik eta norberaren baitan eragiteko asmoz. Gure baitako nahaste, kontraesan, iluntasun, sufrimenduarekin... sartu bertara eta argi, bake, zentzu... arrastoak aurkitu. Toki hau barneratze, sakontze... esparrua bihurtu ezkerreko espazio bat bilakatuko da. Leku bat topaleku bihurtu.

Nik ulertu nuenaren arabera errealitatea izan du abiapuntu. Gordina batetik. Patera bat dago marraztua, baita hilobiak... bizi dugun alderdi iluna, baina alaitasunetik ere badu egunerokoak, eta margotua dago hori ere. Hauekin batera Adan eta Eva, Veronica, Maria, Hitzaren ibaia, apokalipsiko lau zaldunak, azken afaria, gurutzea eta piztuera...

Oso argitsua egin zitzaidan eliza. Goi aldea. Bertara jotzen zuten nire begiek. Gure elizak askoz

ilunagoak izan ohi dira. Dena hutsik zegoenez bertatik ibiltzeko eta pareta haietaz gozatzeko aukera ederra zen, baina Xabi bere azalpenetan zebilen. Hemengo marrak batasuna emateko konjuntuari, hango besteak ez dakit zein arazoren irtenbidea... Hausnarketak bereak eta beste batzuenak...

Amaitu genuen han. Baita Egibide ikastetxeko sukaldaritza zikloko ikasleek prestatutako janari goxoa jan ere eta etxera itzuli. Goiz hartatik zer geratzen zait? *“El lugar se convierte en un espacio de...”*. Ez da ideia berria, baina bai egungoa. Xabik zera esango balit bezala: Hire baitara biltzen haizenean bizitzaren karga guztiarekin bildu eta aurkitu hor atsedena, argia, zentzua... nik marrazki hauek oparitzen dizkiat lagungarri baldin bazaizkik.

Goiz hartatik bi gauza ditut faltan. Bat eliza barrenetik paseatu, gozatu... topatu. Pasatzen naizen hurrengo aldiaren poz handiz egingo dudana. Eta bi, atariari erreparatu. Ez bainaiz ia ezer oroitzen hortaz. Hau ere margotua dago eta pintoretako batek arrakasta handia izan omen du, gure elizetako atari ia guztietan agertzen den pertsonarena, hain zuzen. Xabi, pintatzen hasi aurretiko lanaz aritu zitzaidun bertan.



GURE ESNAERAK

(Laugarren testigantza)

Pello ESNAL

*Badoaz gurean, edo joanak dira,
trumilka, saldoka, Elizatik ihesi.
Baina atzeko atetik, apurka, badatoz.*
Jokin Otaegi
(Ihintza, 71)

Berezko esnaera –gaztelaniaz, *despertar espontáneo*– izan genuen hizpide aurreko *Ihintzan*, 97.ean, Julian Jauregi, Yolande Durán eta Javier Melloniren testigantzak lagun. Horien eskutik hurbildu ginen, ahalegina, bat-batean gertatu eta betirako markatzen duen esperientzia erabaki horretara.

Geroztik, batek baino gehiagok aipatu dit artikulu hura. Agian, mereziko du zertxobait gehitzea, laugarren testigantza bat ere erantsiz.

Gure esnaerak, xumeak baina benetakoak

Gaur egun, dena espektakulu bihurtzeko joera dugu. Zenbat eta muturrerago eraman gauzak, esperientziak eta kontaerak, orduan eta hobeto, orduan eta morbosago eta ikusgarriago, komunikabideak ere eragile sutsu.

Agian, neu ere tentazio horretan erori nintzen aurreko artikuluan. Esnaera zer den esaten hasi eta muturreko esperientziak aukeratu nituen: berezko esnaera izena daramatenak.

Eskerrak badudan lagun bat, adinkidea –aurten beteko ditugu 67 urte–, berezko esnaera harrigarri horietako bat bizi izan zuena. Argibide gehiago eskatuz idatzi nion. Maisuki erantzun zidan, berak ohi duenez. Hona hemen lagunaren hitzak (neuk gaztelaniatik itzuliak):

Javier Mellonik ez du inoiz idatzi berak gaztetxotan izandako bizipen hartaz [bere berezko esnaeraz]. Ezta Mónica Cavallek ere. Hain dira barru-barruko gauzak, ez naiz ausartu galdetzerara.

Barrundatzen dudanez, “berezko esnaera” hitz horiek oso intentsitate desberdinetako esperientziak izendatzen dituzte. Batzuetan, zerbait erabatekoa eta atzeraezina izaten da [contundente e irreversible]. Bestetan, egiazkoa bai, baina iheskorragoa izaten da. Horregatik, oso maila ezberdinetako eraginak izan ditzakete gure eguneroko bizitzan.

Lagunaren hitz horien harira, ia berez sortzen zaigu galdera: geuk ere ez ote ditugu ohi bizi horrelako esnaerak, benetakoak, nahiz eta iheskorragoak izan, eta ez berezko esnaera horiek bezain harrigarriak eta txundigarriak?

Adibidez

Ebanjelioetako zenbait pasartek ez al dute gudan halako esnaerarik eragin? Parabola batzuek, esaterako. Ez dira, agian, esnaera harrigarri eta txundigarriak izango, baina bai benetako esnaerak, azken batean gu geu zer garen islatzen digutenak.

Are gehiago, Ebanjelioetako pasarte askok ez al dituzte esnaerak jasotzen? Berehala etortzen zaigu gogora, besteak beste, Tabor mendiko kontakizuna. Era berean, Jesusen piztuera ondoko kontakizunak ez ote dira Jesusen inguruko emakumeen eta haren apostoluen esnaeren adierazpen ezin biziago? Eta are garrantzikoagoa dena: Jesusek berak ez ote zuen, azken batean, horrelako bizipen erabateko eta atzeraezin bat bizi izan gaztetan, eta ondorengo bere bizitza eta jarduna ez ote ziran izan bizipen haren etengabeko garapen eta eguneratze?

Bai. Berritoki berezko esnaera harrigarrietara egin dut itzuri. Baina, agian, horiei esker errazago uler dezakegu zer diren gure esnaera xumeak, errazago sinets dezakegu horietan.

Baina zergatik Ebanjelioetara mugatu? Zergatik ez zabaldu bihotz-begiak gainerako jakinduria-iturrietara? Adibidez, *buda* izenak berak ez al du *esnatura* esan nahi? Eta zergatik mugatu jakinduria-iturri horiek erlijioetara eta antzinako jakindurietara?

Ez dago zaila galderak ugaltzen. Galdera erretorikotzat ere jo ditzake norbaitek. Baina, gaur egun, gero eta gehiago hitz egiten da espiritualitate laikoaz. Jesus bera ere ez al zen laikoa?

San Asensio

Ehunka izan ginen gaztetan nobizio San Asensioan. Eta, tarteka, han bizi izandako urteak

berritzen ditugu elkarrekin biltzen garenean, joan den urtarrilean bezala, hileta baten ondoren.

Tren-geltokiraino lagundu zidan lagun batek. Han geundela trena etorri zain, zeruak eta lurra jorratu genituen hizketan. Eta, halako batean, batak besteari karga handiko galdera:

–Baina gezurrezkoa izan ote zen San Asension bizi izan genuena?

Badira berrogeita hamar urte biok nobizio izan ginela. Geroztik, euri asko egin du. Gaur, biok aitonduta gaude. Eta denok ere gorabehera handiak bizi izan ditugu, geure aurrekoengandik jasotako (ia) guztia zalantzan jartzeraino. Azkenean, eta ondo kostata, lortu dugu zentzua aurkitzea hainbat tradiziori, eta sintesi berrian uztartzea zaharra eta berria.

Horren harira emango genion erantzun bera arestiko galderari:

–Ez. San Asension bizi izandako guztia ez zuan gezurrezkoa izan.

Ezezka jardun orde baiezka jardun izan bagenu, esnaera-bizipenaz hitz egingo genuen, seguruenik. Trena nahi baino lehenago etorri izanak ere bide erdian eten zigun jarduna.

Etixerako bidean, Jokin Otaegik idatzitako pasarte bat etorri zitzaidan gogora. Aldizkari honetan bertan plazaratu zuen 2008ko apirilean. Bi zati ditu. Lehenengoa, idatzi honen buruan ipini dut. Bigarrenak, honelaxe dio:

Ez datoz, ihesi joan zirenean laga zuten puntu berberera, ez eta ere hierarkiak edo erakundeak edo dena delakoak nahiko lukeen puntu ortodoxora, baina bai aberatsagora, ederragora, gustagarriagora.

Jokinen hitzok ez dizkiot bidali, oraindik, tren-geltokian utzitako lagunari. Ez dakit bat etorriko den horiekin. Dena den, eskerrik asko, Jokin. Bihotzez.



HIL ARTE BIZIKO BAGINA!

Aitor ZULAIKA

Sinismenetik baino esperientzian oinarrituta dakigu hildako senideak ez direla behin betirako desagertzen gure ondotik; izan ere, makina bat amets, oroitzapen edo egoera tarteko, gure bizitzaren parte izaten jarraitzen baitute. Gure attona zenak, kasu, maiz errepikatzen zuen esaera bat, garai hartan inongo zentzurik aurkitzen ez niona, ate joka dabilkit azken bi urte hauetan; eta hain zait baliagarri non ezin niretzat bakarrik gorde! Zioen: *Ill arte biziko bagina!*

Izan liteke inoiz esandako txorakeriarik handiena inorentzat; aitzitik, gaur, unean unekoa, izan honek

kalte zein onuragarri itxura, betiereko intentsitatez bizitzera gonbidatzen nau. Esan nezake, nolabait, heriotzari begietara begiratzeak, eta urruti xamarkoengan egunero ikusgarri bada ere aurtengoan ondo gertutik izan dut eta dabilkit, hutsunearen urraduratik jariotako malkoez gain bizitzarako barren barreneko bulkada eragiten didala. Zaudete eta zaitezte bakean Axier eta osaba.

Baina aitonaren bizitzarako agindu hartan aurrera egin nahian lehen koska berehalakoa da; ez al da bada dagoeneko egiten dudana bizitzea? Eman ditut urte batzuk horren eta tankerako galderen

hausnarrean, eta artean horretan badihardut ere, honatx orain arte isiltasunak oihukatu izan didana.

Egiaz Bizi naiz ohiturakeria eta itxurakeriari men eginez baino barren barrenetik datorkidan ahots horri jarraiki nire bizitza gidatzen dudanean une horietan. Horretarako gelditu egin behar izaten dut, nigandik atera Niganago sartzeko; ohartzeko, irribarrea ahoan, antzezlanaren eraren baden bizitza honetan lekukoa izateaz jabetu baino zenbatetan pertsonaia nintzela sinistu izan dudanean.

Egiaz Bizi naiz ditudan lotsek baino barne bakezko iparroratzak markatutako noranzkoari eusten diodanean. Horretarako, zoztor harri bilakatu zaizkidan beldur horiek hor ditudala onartzea lehen urrats besterik ez bada ere, hauek abiaburu harturik, hor daudela jakin, datozenean entzun, eta erabakiak hartzerakoan lotsak eta beldurrak musikaren entzule bilakatzen ditut orkestraren zuzendari baino.

Egiaz Bizi naiz balizko ziurtasun irmoenei uko egin eta ziurgabetasun den bizitzari heltzera ausartzen naizen une horietan. Gizakion ezaugarri gizatiarrena ere izan daiteke kontrolaren kimera beti presente izatea, eta horrek akitu egiten nau maiz. Nolako lasaitua guztia nire esku ez dagoenaz jabetu eta onartzen dudanean! Ziurgabetasuna onartzeak, eta datorrena datorren bezala on-hartzen jakiteak ere ematen du ziurtasun bat, ziurtasunetan ziurrena daitekeena.

Egiaz Bizi naiz iraganeko mamu hotzek eta etorkizunerako irrika beroek baino orain iheskorrean zentratzen naizen une horietan. Onartu beharra dut zentratze horretan orainaren garrantzia azpimarratzen duen literatura irakurtzeak baino gehiago lagundu izan didala maitearekin izandako muxuak eta sagarrondoari urtaroez galdetzeak. Gure

baratzak ematen digun fruitu garrantzitsuena ez baita jaten den hura.


Egiaz Bizi naiz hurkoa nigandik bereizteko eraikitzen dudanean harresi handi hori eraisteko gauza naizen une horietan. Zein neketsu eta antzu zaidan zugandik, Zugandik finean, at bizitzen saiatzeak. Ene aberria ez baita nirea; ez baitu nire etxeak nire izaten jarraitzerik, areago, orain baitakit ez dela sekula nire izan. Egiazko bakea zurekin eta zure bitartez Zurekin bat izatea lortzen dudanean une hori da.

Egiaz Bizi naiz maitatzen dudanean baino Maitasuna naizen une horietan; iturburu bereko maitasun erreka anitzen uretatik edan baino Maitasuna den itsaso zabalarekin bat naizen une horietan. Zer beste ninteke bada Naizena ezpada? Jolas nezake beste zerbait izaten saiatzera, horretan ematen dut denbora gehien, baina Zure iturritik baino ezin ase nire egarria.

Egiaz Bizi naiz biluzik etorri nintzela eta joango naizela gogoratu eta biluzik bizitzera ausartzen naizen uneetan. Onartu behar dut apaingarriz josten zaituztenean eta urrez estali, zail, kasik ezinezko, zaidala Zu ikustea. Biluztu nadin Niagotzen ez nauen guztiaz.

Egiaz hil arte Bizi, zer beste egin nezake, bada? Zer beste zenezake?

Eziñ bukatu zui attona, da beste umbeste jendei eskerrak emanbe. Eskerrak orduko bizipenengatik, gaurko rekuerdungatik, da geana zuek gabe enteitzeik eztozako. Hartu giñun testigua; asmazaun pulamentuz eamaten da hurrungoeidi eskura ematen. Iñalak eingotteu! Ez onena ziñalako, ez falloik etzendulako; ill arte bizi izan ziñalako bizi zea illda geore!



HANDIK ETA HEMENDIK

Inazio ACHA

Zerbait idaztea, artikulutxo bat taxutzea, ez da berez eta erraz ateratzen zaidan gauza, ez horixe, baina Jose Manuel Agirrezabalagaren mailua, danba-danba eten gabe jo eta jo atzean duzunean, xuabe-xuabe baina gelditu gabe, azkenean amore ematea beste erremediorik ez duzu. Holaxe bada, hemen dituzue buruan erabilitako zera batzuk.

BARTALI

Aurten 100. Giroa korritzen da Italian, eta hori dela-eta ugariak izan dira Giroaren historiaren inguruko aipamenak komunikabideetan. Eta horien kariaz izen bat etorri zait gogora, txikitan etxean aitari askotan entzundako izena, baina azken boladan nahiko ahaztuta nuena: Gino Bartali. Gure aitak izugarri miresten zuen Gino Bartali karrerista italiarra, berarentzat ez zegoen hura bezalakorik; “el fraile volador” gaitzizena gehitzen zion beti (eskapulario handi bat soinean zeramala korritzen zuen eta katoliko zintzo eta kartsua zen), eta errepidean autoan gindoazela, txirrindulariren bat



ikusiz gero, aitaren aupada beti bera zen: “Ale, Bartali!”. Gauza jakina da txirrindulari bikaina izan zela, eskalatzaille aparta eta palmares handiaren jabea. 1938ko Tourra irabazi zuen eta baita, hamar urte geroago, 1948koa ere, tartean II. Munduko Gerra izan zelarik. Zenbat Tour irabaziko zituen gerrarik izan ez balitz? Euskal Herriko itzulua ere uste dut behin irabazi zuela.

Dena dela, hori guztia mirestekoa bada ere, ez da gutxiagorako II. Munduko Gerran zehar egin zuena: entrenatzen ari zelako aitzakiarekin, bizikletako tuboetan gordeta dokumentu eta pasaporte faltsuak eramaten eta pasatzen zituen alde batetik bestera juduak salbatzeko asmoz. Mussoliniren soldaduek irribarretsu agurtzen zuten txepeldun handia, berak bizikletan ezkutatuta juduak babestuko zituzten paperak zeramatzala. 800 judu baino gehiago heriotzatik salbatzea lortu omen

zuen Bartalik eta beste batzuek osatutako erresistentziako sare horrek.

Hala ere, eta hau miresgarriago da oraindik, gerrako jarduera hori guztia Bartali hil eta gero jakin da, alegia, berak etxekoekin baizik ez zuen horretaz hitz egin. Begira gauzak zer diren: Bartali askorentzat faxismoaren sinboloa zen (Fausto Coppi ez bezala), txirrindulari faxista, baina berak isil-isilik gorde zuen gerran egindako balentria, bere merituak inoren aurrean plazaratu gabe: “Egin beharrekoa zen eta kito” esaten omen zion semeari. Eta nola jakin izan dugu hau guztia? Beste hirugarren pertsona bat hil ondoren, ezkutuan zegoen bere egunerokoa ezagutzera eman denean, hantxe azaltzen baitziren organizazio klandestino haren funtzionamenduaren gorabehera asko eta asko.

Txalo, goraipamen eta ohore asko jasota joan zen mundu honetatik Gino Bartali txirrindulari handi eta apala, baina, ziur, merezi baino gutxiagorekin.

IPUIN BAT, ERAKUTSI BAT (ETA NAHIKO)

Esku artean izan dut Txano-gorritxo ipuinaren bertsio “moderno” bat. Bukaera diferentea zuen, berria: ehiztariak Txano-gorritxo eta amona otsoaren sabeletik atera ondoren, otsoari sabela berriro josi, sendatu eta zoo batera eraman zuten, han lasai eta inor hil gabe zoriontsu bizi zedin, gaurko sentsibilitate animalistarentzat ez baita oso zuzena piztia bat horrela, besterik gabe, hiltzea. Ez al da polita, haur maiteok?



Jakin behar dugu ipuin zahar honen lehenengo bertsio idatzia 1697ko dela, Perrault-ek jaso, eta bukatzen dela Txano-gorritxoren heriotzarekin. Otsoak rau! irensten du neskatxa eta kito, han ez dago ehiztari salbatzailerik eta ez ezer. XIX. mendean Grimm anaiek gehitu zioten denontzat ohikoena eta ezagunena den bukaera, ehiztari salbatzailearena, alegia. Ziur asko krudelegia iritziko zioten Perraulten bertsioari, gogorregia, eta eztitu eta goxatu egin

zuten ipuina. Ederki, baina, dudarik ez, indar moralizantea ere kendu zioten, ze azken batean, berdintsu da ezezagunekin fidatzea edo edo ez, total, egin behar ez dena eginda ere, azkenean salbatzaile bat etorriko da guk gaizki egina konpontzera.

Gaur, ordea, politikoki zuzenaren izenean, otsoa ere salbatu behar dugu. Baina kontua da, eta hau antzinakoek dezente garbi ikusten zuten, ipuin batek ezin duela den-dena erakutsi, kontakizun bakoitzak nahikoa duela irakaspén batekin, eta ez dagoela giza balio guztiak kontuan hartuko dituen narratiborik, horrelakorik ez da posible. Ipuin bat, erakutsi bat. Eta kito. Eta ez bazaude konforme otsoaren heriotzarekin, asma edo erabil ezazu beste ipuin bat animaliekiko errespetua eta abar haurren buru-bihotzetan txertatzeko, baina utzi besteak bakean.

Gauza bera ikusita nago txindurriaren eta txitxarraren alegiarekin: txindurri langilea errukitu egiten zaio txitxar alferrari eta azkenean etxe barrura sartzen uzten dio, txindurria langilea ez ezik solidarioa ere bai baita. Irakaspén ona haurrentzat: lan egin edo ez egin azkenean berdín da, beti izango delako lagunduko dizun txindurri errukitsua. Horra hor zuzentasun politikoaren ondorio ederrak.

Alegia bat, erakutsi bat. Printzipio hau kontuan hartuta, uste dut hobeto ulertu ditudala Ebanjelioko zenbait parabola ere, gogor xamarrak eta ez oso zuzenak iruditzen zitzaizkidanak; adibidez, bost neskatxa zuhur (baina egoista) eta bost neskatxa ergelena, administrari maltzurrena, eta baita mahastiko jabearena ere (langile guztiei berdín ordaintzen diena, egindako lana oso kontuan hartu gabe).

Ipuin bat, balio bat, eta nahikoa.

MEMORIA HISTORIKOA

Javier Cercas idazleak dio ezinezkoa dela memoria historikoa, hau da, ezinezkoa dela biak bateratzea, memoria eta historia, kontraesankorrak baitira, oximoron bat, alegia. Memoria subjektiboa eta pertsonala da, bakoitzak berea du, ez ditugu gauzak modu berean gogoratzen, nork bere memoria du, eta hala behar du, gainera. Historiak, berriz, objektiboa behar luke, prozedura zorrotzez eta zehatzez egindakoa, historialari profesional eta serioek eraikia. Nola uztartu hain diferente diren bi horiek? Ezinezkoa.

Gogora datozkit Cercasen gogoeta hauek asteburuetakotako ETBko albisteak ikusten ditudalako eta astero-astero, ia hutsik egin gabe, programa baten barruan baleude bezala, asteburuko liturgia baten barruan egongo balira bezala, ikusten ditudalako honako albisteak: gerra zibilean hildako gudari batzuen gorpuzki batzuk lurretik ateratzea, gerra ostean fusilatutako batzuei egindako omenaldia, ez dakit zein herritako bonbardaketa, ez dakit zein zulotan aurkitutako hezurren identifikazioa, gerran errepresaliatutako batzuen omenezko oroigarri baten inaugurazioa... Eta hori astero-astero, lehen esan dudán moduan, hutsik egin gabe (eta ia beti Francisco Etxeberria forense bipila tartean). Egia esateko, asper-asper eginda naukate.



Albiste horien protagonista gehienek justizia eskatzen dute, justizia egin dadila behin eta berriro. Horren aurrean bi galdera bururatzen zaizkit:

Bat: egin al daiteke justizia orain dela 80 urte hildako eta asasinatuekin? Nork ordaindu behar du orduan egindako bidegabekeria horiengatik? Hiltzaile haien seme-alabek akaso? Erru hauek ere, zorrak bezala, oinordetzan jasotzen al dituzte seme-alabek gurasoengandik? Gurasoen bekatuak seme-alabengana igarotzen al dira, aspaldiko Israelen bezala? (Kuriosoa da: justizia hori, ezinezkoa den justizia hori oso-osoz ozenki exijitzen duten asko eta asko ahotsik gabe gelditzen dira denboran askoz hurbilago ditugun bidegabekerien eta hilketen ordaina eta justizia eskatzeko garaian. Benetan bitxia).

Eta bi: zer dirurekin finantzatzen dira erreparazioa eta justizia lortzera bideratutako jarduera horiek guztiak? Diru publikoarekin? Gizarteak hainbeste behar eta premia dituen honetan, egokia al da denon diruaren erabilera hori?

Ai konponketa duten gauzak konpontzen ahaleginduko bagina eta erremediorik ez dutenak bakean utziko bagenitu!

MISTERIOZKO ETXEAREN ALTXORRA

Erik SARAIVA
Irungo La Salle - LH 6

Bazen behin, bosteko mutiko-talde bat. Basotik zehar ibiltzen ari zirenean galdu egin ziren. Mutilak beldurtuta zeuden, ez zekiten nora joan. Zerua iluntzen hasi zen eta bat batean, zuhaitz artean etxe zahar bat ikusi zuten. Mutilak korrika abiatu ziren etxe horretara. Ailegatu zirenean ate aurrean gelditu ziren. Mutil batek ez zuen sartu nahi eta kanpoan gelditu zen. Beste mutilak sartu ziren. Etxea puskatuta zegoen eta sagutxo asko zeuden, dena botata zegoen. Mutil batek ahots bat entzun zuen:

–Etorriiiii, etorriiiii...

Mutila ikustera joan zen nondik zetorren ahots hori eta eskailerak igotzean paper bat ikusi zuen lurrean, hartu zuen eta...

Etxeko plano bat zen! Planoko toki batean puntutxo gorri bat zegoen. Mutilak taldera eraman zuen plano eta talde guztia puntutxo hori zegoen toki ikustera joan zen. Ailegatu zirenean beste paper bat zegoen, beste pista batekin: “Etxeko toki ilunena, traste askorekin eta beldurgarria”.

Sotora joan ziren eta hango izkina batean beste paper bat zegoen, eta beste pista bat: “Altxorra aurkitzeko kanpora joan behar duzue, zuhaitz eta landareen artean ezkutatuta dago”.

Mutilak korrika joan ziren eta etxetik kanporatzean, kanpoan gelditu zen mutikoa ez zegoen. Lagun taldea zuhaitzen eta landareen artean bilatzen hasi zen. Ordu asko pasa ondoren, azkenean altxorra aurkitu zuten: kaxa handi bat zen eta irekitzean..., kanpoan geratu zen mutikoa zegoen! Baina beste paper bat zegoen eta hau jartzen zuen: “Altxor hoberena ez da dirua, etxeak, trofeoak... lagunak baizik”.

Bat-batean kotxeko klaxon bat entzun zuten: haien gurasoak ziren. Lagun guztiak kotxean joan ziren beren etxeetara, denek atzera begiratzen zuten bitartean.



SAIA ZAITEZ PERTSONAIAREN LEKUAN JARTZEN ETA PENTSATU ZER EGINGO ZENUKEEN

Ainara FENG
La Salle EIBAR - DBH 1

Gaueko bederatziak ziren eta oraindik bankuan eserita nengoen, nire bakardadean murgilduta, alboko errekaen ur lasterrek ateratzen zuten lagunarte bakarrarekin. Bat-batean, haize bolada bat etorri zitzaidan eta hark eskua luzatu balit bezala, sentipen bitxi bat izan nuen. Baina azkar asko ahaztu nuen sentipen bitxi hura, beste arazo larri eta gai garrantzitsu asko nituelako.

Orduan, lurrera begiratu nuen eta uso batzuk ikusi nituen jaten ari zirenak, jendea ez zegoela aprobetxatuz. Usoak ikusteak inbidia ematen zidan, jateaz eta lo egiteaz soilik arduratu behar zirelako, ez ni bezala. Arrazoi horrengatik, askotan, pertsona bat izan beharrean, uso bat izatea desiratzen dut, eta, are gehiago, azken bolada honetan gogo handiagoz desiratzen dut.



Nire ametsei buruz pentsatzen jarraitu nuen, eta ohartu nintzenerako gauerdia zen. Etxera itzultzeko orduak aspaldian emana zuen. Baina nik ez nuen etxera itzultzeko gogorik, eta eserita nengoen parke horretan gaua igarotzea erabaki nuen.

Egia esan, ez dut egun hartaz asko gogoratzen. Hala ere, oraindik gogoan dut nire azken pentsamendua, edo, hobeto esanda, egun hartako nire azken otoitzak hauexek izan zirela:

Jauna, lagun iezadazu momentu latz hauek igarotzen, berriro hasi eta den-dena konpontzeko, nahiz eta ezinezkoa ematen duen; esaiozu nire familiari maite ditudala eta dena berriro hasteko prest nagoela. Barka iezazkidazu zeuk ere nik egindako oker guztiak eta egingo ditudanak, azken

egun hauetan nire erabaki guztiak okerrak izan dira eta...

Hurrengo goizean, aurreko eguneko banku bertsuan esnatu nintzen. Eta ibaiari begira, minutu batzuetan pentsakor gelditu eta gero, erabaki sendo bat hartu nuen: nire arazo nagusiak konpontzen saiatuko nintzen.

Nire konpromisoa betetzen hasteko Eneritzen etxerantz joan nintzen. Bidean, beldurrez nindoan, barkamen hitzak pentsatzen nituen bitartean. Gainera, kezkatzeko arrazoi guztiak nituen: Beste egunean, bera bainujantzitan ateratzen zen argazki bat igo nuen interneten, nahi gabe. Bera horretaz ohartu eta azalpen eske nigana etorri zenean, ni korriketan irten nintzen ihesean.

Eneritzen etxera heldu nintzenean, aurpegia eta eskuak busti-busti eginda nituen. Haren etxeko txirrina jotzen ausartu nintzen. Segundo gutxi batzuetan bera ni besarkatzen ari zen. Adiskidetasun keinu horrek harri eta zur utzi ninduen, batez ere, berari egindakoa egin eta gero. Besarkada bukatu bezain azkar, barkamena eskatzen hasi nintzaion, gauza guztiak azaldu nizkiolarik: oso sentitzen nuela, egindakoaz damututa nintzela... Berak ez zidan momentu batean ere ez moztu eta ezta hitzik esan ere nik bukatu arte. Azalpenak ematea bukatu nuenean, berak berriro besarkatu ninduen eta espero ez nituen hitzok luzatu zizkidan: *Sara, badakit damututa zaudela eta oso sentitzen duzula. Nik hasieratik barkatu dizut, badakidalako ez zenuela nahita egin eta damututa zeundela. Baina, hurrengo batean galde iezadazu beste argazki bat igo aurretik.*

Hori guztia entzuterakoan, pozez zorutzen jarri nintzen eta familiakoekin nuen arazorik larriena, tabakoarena, konpontzeko gogoz eta indarrez bete nuen nire arima. Horrengatik, nire etxera abiatu nintzen, eta nire familiari esango nienaz konbentzitzeko gauza batzuk erosi nituen. Etxera heldu nintzen eta ez nuen txirrina jo beharrik izan. Nire amak leihotik ikusi ninduen eta ikusi bezain azkar atea zabaldu zidan. Etxeko atarira sartu nintzen. Nire etxeko ataria zuriz margotuta zegoen

eta, ezker aldean orain dela 35 urteko ispilua genuen jarrita. Erositakoa, ispiluaren behealdean zegoen mahai txiki baten gainean utzi nuen.

Ama eta gainerakoak ikusi orduko negarrez hasi nintzen. Kontsolatzeko, amak musu handi bat eman zidan masailean. Lasaitu nintzenez, honela hasi nintzaian: *Badakit oso haserre zaudetela eta ez duzuela gogo handirik izango ni ikusteko. Badakit, baina ere, gaizki egin nuela tabakoa erretzen hasi nintzenez eta ez nizuela jaramonik egin. Baina orain damu naiz egindakoaz eta aitzinako hiru aстера itzuliko naiz den-dena aldatzeko.*

Pixka bat geroago, denek esan zidaten gauza bera: *Sara, guk beti barkatuko zaitugu. Badakigu damututa zaudela. Gainera, barkamena eskatzeko ausardia izan duzu, eta horrek oso balio du.*

Une horretan, erositakoa erakutsi nien: tabakoa debekatzen zuen seinale bat.

Denak barrezka hasi ginen.

Aurrerantzean, oker gehiago ez egiten saiatu nintzen. Gauero, Jainkoari eskerrak ematen dizkiot, gaizki pasatutako egun haiek familia eta lagunak balioesten irakatsi zidatelako.

XXI. MENDEAN

Amaia PEREZ

La Salle BEASAIN - DBH 3

Gaurkoan beti bezain itxuroso nago etxeko ispiluaren aurrean, txakur zuri-beltz geldiezin batez inguratua. Gona beltzaren aldean nire begi berdeak, berde dirdiratsuak. Urrezko ile luzea bitan zatitu eta bi ilekordan bildu dit amak, oztopo ez egiteko. Azkazalei behin eta berriz hozkaka nabil, erabat urratuak dauzkat. Urduri nago.

Ordua da, dagoeneko berandu gabiltza. Etxetik ziztu-bizian irten eta hiriko aire kutsatuak aurpegian joko banindu bezala nago. Triste. Hurrengo autobusaren esperoan. Erabat nekaturik nago, hartz bat neguko denboraldian bezala. Begiak estaltzear ditut. Autobus geltokiko beiratean islatuta ikusten dut nire aurpegi grisa. Eta bertan zera etorri zait gogora, behin eta berririo etortzen zaidana eta inoiz ahaztu ezingo dudana:

Oraindik gogoan dut arrats hura, ama eta biok zelai zabal eta berde hartara joan ginenekoa. Hangoak izan ziren nire argi entzundako azkenekoak. Ordutik ezer ez. Aire leunak aurpegian laztanduz, ingurumen garbiaren usaina sentituz, mentazko txiklea dastatuz, zure eskua ukitu bitartean negar malkoak irrist eginez... Eta bere azken hitzak barregarriak, benetan.

Txikitatik amak bazekien gaixotasun hau izango nuela. Baina ezer ez. Ez da ezta pittin bat ere saiatu aurre egiteko, nire arazoa zela esaten zidan. Auskalo! Orain belarritako berezi bat jarriko didatela esan dit. Bai zera! Ez naiz bi urteko ume bat, dagoeneko bost ditut eta ipuin bat eta errealitatea ezberdintzeko gai naiz. Badakit gauza arraro bat belarrian eraman beharko dudala urtez. Eta zer? Aldez, hobeto entzungo dut. Ez al da poztekoa?

Autobusaren soinua nabari dut. Lurrak dar-dar egiten du. Pixka bat nire burua esnarazteko burua astindu eta... gora. Otorrinorantz goaz. Estu helden diet amaren esku handi eta azal lehorrei. Bera urduri dagoela nabari dut. Akaso orain kezkatzen da? Bada garaia.

Nire irudipenean amak ez nau maite, baina jakitun naiz baietz. Urte hauetan ez dit gehiegi adierazi eta susmoa dut, gorra naizelako dela hau, ezertarako ez dudala balio pentsatzen du. Pikutara! Ni besteak bezalakoa naiz. Eta noizbait frogatuko diot.

Ama eserita dago, eta bere izterretan nago ni etzanda. Ilea laztanduz, bere ahots goxoaz kantari ari da: *Haurtxo, haurtxoa, izu egin lo, hemen nauzu zu zaintzeko.*

Nola? Zaintzeko? Bai zera! Bueno, agian arrazoia du, ni naiz zaintzen uzten ez dena. Handia izan nahi dut, eta handiek nahi dutena egiten dute. Amak ezezkoa esaten dit. Kasu egin beharko. Saiatuko naiz, ea hala den.

Bueltan gatoz. Hamabost minutu hauek ez dira esperotakoak bezalakoak izan. Alde ona... nire medikua txistetakoa dela. Aho handi-handia, bata txuri batekin hodei garbiak bezalakoa eta ilerik ez, buru soila! Guztiz karikatura bat!

Mina, molestia, urduritasuna, argia..., burua erabat nahastua dut. Arraro sentitzen naiz. Min egiten dit tramankulu honek. Oraindik ere urduri nago, bihar eskolara joan eta zer pentsatuko ote dute lagunak? Gaur huts egin dut. Egia esan, gaurkoan amari kasu egingo diot, urte gutxiren barru ondo jarriko naiz eta ziztu bizian kenduko didate.

Argi entzuten dut. Eskerrak! Bueno, guztiz ondo ez, baina esan dezaket argiago. Sentsazio askea nabari dut nire azalean. Harri pisutsu bat gaintetik kenduko banu bezala. Txorien kankak senti ditzaket, maite dudan musika entzun... Den dena.

Goiza da. Amak oihu batez esnatu nau, urtetako praka berriak eta jertse lerroduna jantzi, laranja zukuari pare bat zurrutada eman eta eskolarantz goaz biok.

Nik ere ez dakit nola nagoen, urduri, pozik, gogoz, haserre... Ez dakit zer gertatuko den hara iritsitakoan. Agian ez dute ulertuko zergatik daramadan, galderak egiten hasiko dira, ez didate kasurik egingo... Denetarik gerta dakidake.

Bidaia amaiezina egin zait. Bertan gaude. Amak nire irakaslearekin hitz egin du. Bere muxu leunetako bat eman dit, zetazko tela bat bezalakoa, eta ipurdian ukitu bat ematerako eskailerak igotzen hasia nintzen. Ikaskide guztien begiradak nire bizkar atzean eramango banitu bezalako sentsazioa dut. Zaku bete begirada. Arreta guztia niregan jartzen dutela dirudi. Gorroto dut! Noizbehinka ingurura begiratzen dut ea norbait begira dudan.

Inork ez du nirekin jolastu nahi. Baimena eskatu beharra dut eta orduan ezezkoa erabakitzen dute. Inoiz bizi izan ez dudan momentu honek erabateko aldentzea eragin dit.

Sinesgaitza da. Duela pare bat egun entzun ezin nuenean, dena behar bezala zegoen eta orain hobeto nagoenean dena aldatzen da. Amak eta irakasleek denborarekin aurrera joango dela baieztatu didate. Lasaitu naiz.

Amona etorri zait gogora. Berak, garai batean gaizki egon eta gaur egun ere aldaketarik ez dagoenean zera esaten du: *Eta XXI. mendean dauden gauza modernoekin oraindik hau gertatzea.*

Hitz batzuk besterik ez dira. Baina, beti bezala amonak arrazoi.



SEXU INDARKERIA

Iraia GONZALEZ
La Salle EIBAR - BATX 2

Emakumeen aurkako indarkeria, gizon eta emakumeen arteko desberdintasunaren adierazpen kezkarrienetako bat da. Are gehiago, gaur egun pil-pilean jarraitzen duen arazoa da. Zentzu horretan, premiazkoa da giza eskubideen urraketa larri horren aurka lan egitea. Beraz, noizko emakumeen aurkako indarkeriaren amaiera? Honetarako, epe laburrean ari izatea ezinbestekoa da, biktimak babesteko eta haiei arreta eskaintzeko baliabideak sortuz.

la gizarte osoaren arabera, zigor zorrotzagoak eta lege bereziak oso baliagarriak izango lirarteke. Honekin, zer lor genezake? Kalera bueltatzea eta hasitako lana bukatzea, bortzatzaileak ez baitira gelditzen euren biktima hil arte. Konponbiderik gabeko arazoa ote da orduan? Heziketa da konponbidea, umeak gizon eta emakumeen arteko berdintasunean hezi behar ditugu, baita hazi ere. Giro feminista batean hezitzea komeni da, berdintasunean, emakumea dagoen zulotik ateratzeko nola jokatu beharko genukeen erakutsiz. Txiki-txikitatik berdintasunean hezitako umeak ez

dira bortzatzaileak izango, eta baliteke, denborarekin, bortxaketa gure eguneroko albisteetatik desagertzea.

Baina, jakin badakigu hau posible ez egitearen "alde" hainbat sektore daudela, hala nola, bideojokoena. Espainian merkaturatzen diren gero eta bideojoko gehiagok izaera sexista dute eta emakumeen aurkako gogorkeria bereziki sustatzen dute. Txarrena da, edozein adinetako ume, gazte edo helduak eskura ditzaketela, dendetan edo interneten bidez dohainik jaitsi daitezke gure zoritxarrerako.

Azken finean, gizartea aurrera egin beharrean hain ari da atzera egiten, non egunen batean gure birraitona eta birramonarekin topo egingo baitugu.



PATXI EZKIAGARI OMENALDIA LEGORRETAN

Jose Manuel AGIRREZABALAGA

Patxi Legorretako seme dugu. Eta herriaren sorreraren laugarren mendeurrena beteko zela-eta Patxik poema-liburu berri bat osatzeari ekin zion 2012an, Legorreta zuelarik bihotzean eta buruan. Baita udalak berak ere argitaratu 2016aren amaieran. **Urrutiko lur hauek** jarri dio izenburu Legorretako poetak. Liburuaren hitzaurrea Zelai Amenabarro, Legorretako alkatearena da, eta poemaren gaztelaniazko bertsioa ere eskaintzen du liburuak.

Joan zen martxoaren 19an, igandean, aurkeztu zen liburuaren Legorretako Herri Antzokian, eta ekitaldia Patxiri omenaldia egiteko aprobetxatu zuen herriak.

Ekitaldian mahaiburu Legorretako alkatea izan zen, Patxiren ondoan. Ekitaldian parte hartu zuten udaleko zinegotziek, Legorretako herritarrek, La Salleko Anai talde batek eta hainbat eta hainbat lagunak. Azpimarratzekoa Joan Mari Irigoien idazle oparo eta Patxiren lagun-minaren presentzia.

Alkatearen sarrerako hitzen ondoren aurrekuarekin eman zitzaion hasiera ekitaldiari.



Liburuaren aurkezpena alkateak eta Patxik berak egin zuten. Patxik azaldu zuen poemak, herria aipagai izanik ere, munduaren, bizitzaren –bere alderdi pozgarri eta arazoekin–, heriotzaren, itxaropenaren, musikaren, gaztediaren irakurketa bat eskaini nahi dutela.

Aurkezpenaren ondoren liburuak hamar poema irakurri zituzten herriko kultur erakundeetako beste hainbat lagunak, haur eta gazte, sasoiko eta adineko lagunak, emakumezko nahiz gizonezko. (*Ondorengo orrialdeetan doaz poema hauek*).

Omenaldi gisa ere, eta esker onez beterik, Ekaitz eta Irati Goikoetxea anai-arrebek, beraiek idatzitako poema eder bat irakurri eta antzestu zuten, sentimenduz beterik, **Urrutiko lur hauek** liburuaren izenburuari zukua atereaz. (*Ikus bukaerako orrialdeak*).

Ondoren Elekun abesbatzak eta Irrintzi Alai dantza-taldeak Legorreta herriaren 400. urtemugarako konposatutako gorazarrea abestu eta dantzatu zuten (hitzak Patxi Ezkiagarenak dira eta musika Tomas Aragüesena). Eta beste zenbait abesti eta dantza ere.

Bukatzeko alkateak lore-sortarekin batera zurezko kutxatila bat oparitu zion Patxiri non idatzia datorren Ekaitz eta Iratik idatzitako poemaren amaiera: *Nola irudimenak...*

Patxik ere, esker onez, Irun Hiriko 2003ko eleberrisaria irabazi zueneko garaikurra oparitu zion Udalari.

Eta ekitaldia bukatzeaz zenean, bere eserlekutik altxa eta, guztion sorpresarako, han joan zen Patxi, jende artean, Joan Mari Irigoienengana eta besarka handi eta luzea eman zioten elkarri. Azken txalo zaparrada izan zen.

Aurkezpen eta omenaldi hunkigarria bizi izan genuen benetan. Horren lekuko Ekaitz eta Iratik idatzitako hau:

Masusta more heldua ahora eramatearen parekoa; astero-astero zure poema goxo horietako bat mezu elektronikoko bidez jasotzea: “Kaixo, Irati... aste honetako poema... bihotzez, Patxi”. Urteak daramatzagu larunbatero-larunbatero “Itaka” literatur saioa zure olerki batekin hasten; urteak zure hitz bidezko emozio eta sentipenak uhin bidez haizatzen. Igandean Legorreta herriak egin zizun omenaldi zoragarrian guk ere parte izan nahi genuela eta urtetan jasotako altxorra modu apal eta xumean oparitu nahi izan genizun. Hunkigarria izan zen oso igandean zure ondoan egotea, zure begietara begira hitzekin jolasean aritzea, zuri bi muxu ematera hurbildu eta belarrira xuxurlatu zenidan “preziosa” neure egitea, Joan Marirekin eman zenuen besarkadaren testigu

zuzen izatea. Bizitza eta pentsamendua dantzatu behar ditugula (nik biak aukeran, suelto eta agarratuan) zure ezpain artetik entzutea. Beste behin, eskerrik asko urrutiko lur hauetan zure ondoan egoteko aukera emateagatik. Etzerakoan Eleder txikiak galdetu zidan "amatxo zein zen gizon hori?" eta nik bihotz handi bat zarela kontatu nion.



URRUTIKO LUR HAUEK

Patxi EZKIAGA

Legorretan, 2017ko martxoaren 19an, liburuaren aurkezpenean irakurritako poemak dira ondoren doazenak.

1

Eskolatik atera berriak,
Harripilara goaz futboleko jokatzera.
Etxean utzi ditugu etxeko lanak eta kutxatilik,
eta koloretan margotu beharreko txorien laminak.
Amari pezeta bateko txanpona eskatu diot,
patrikan aurki dezan kukuak,
kantatzea bururatzeko bazaio.
Urrutian aita ikusi dut,
ohol bat bizkar gainean hartuta,
trenbidea zeharkatzen.
Udaberriko hodei zuriek ere
ez dute askoz gehiago behar
aurpegia alaitzeko.

(Otsailak 1, 2012)

2
BALKOIA

Aitaren tailer gaineko balkoitik
Bilkoin mendia ikus zitekeen,
eta trenbidea.
Ez zen behatoki txarra inoiz itsasoa eta lur zabalak
ikusi ez dituenarentzat.
Udan.gereziondoak hustu ondoren
haritzak, gaztainondoak, ezkiak eta pagoak
oraindik berdez jantzita zaudenean,
zeruak egunetik egunera urdinagoa ematen zuen,
itsaso inbertitua balitz bezala.
Eta gure jolasetan Telmo Zarra edo Eddy Merckx
izatearekin amets egiten genuen.

(Otsailak 2, 2012)

3
KOATE

Zerua estaltzen ari da. Trumoi soinuak
gereziatik urrundu ditu txoriak.
Hodeiak laster batean doaz
Murumendi aldera, agian Marik
bere kobazulotik deituta.
Behiak, lasai, larrean ari dira;
baserritarrak, segan.
Hitza eta isiltasuna, mikaztasuna eta zalantza,
egonarria eta eroapena.
Bizitzak, bizitzaren oroitzapenak
badu bere misterioa.

(Otsailak 3, 2012)

13
HALA IZAN BEDI

Legorretako arimaren baratzera
itzuli nahi nuke zahartzaroan,
eta txorien kantuan barneratu
-planeta txikiak balira bezala-
herriko doinu guztiak.
Legorretako lurrari begira eman nahi nituzke
orduak, eta lurra ezagutu,
lurrarekin bakeak egin, eman diezadan
nire itzal eta iluntasunen
barkamena.
Legorretako zeruari begira,
milioika izar ikusi nahi nituzke,
eta esne bidez igurtzi nire ogia,
nire ezpainek inoiz ahantz ez dezaten
herrimaren zaporea.

(Otsailak 16, 2012)

15
J.M. OROITUZ

Tabernaria hil da.
Inork ez du botako zerrautsik lurrean,
Inork ez ditu jarriko Tourreko etaparen sailkapenak
eta futboleko kinielak arbelean.

Tabernaria hil da.
Mostradorea marmola bezain hotza gelditu da,
basoen soinurik, ardoaren kolorerik gabe;
eta bertan hobiratuko dira
herritarren ahanztura nahia
eta begi tristeei alaitasun iragankorra
ematen zien edariaren distira.

Tabernaria hil da.
Noizbehinka, ilunabarreko eguzkiak
teilatua zertxobait epeltzen dituenean,
dardarka dagoen mahai bat imajinatzen dut
zeruan, eta irribarrez begiratzen didan
tabernaria ondoan,
gogorra egiten baitzait paradisu txikien atea
giltzarraz itxi behar izatea.

(Otsailak 18, 2012)

45

Neguko ilunabarretan
betiko balira bezala gelditzen dira
elurretan utzi ditugun urratsak,
gure ibilbidearen seinale.

Euriak eramango ditu lurraren ezpainenetara,
nola iturriak bere kantua,
azken maiteminduak joan ondorengo
herriko plaza hutsean.

(Martxoak 19, 2012)

128

Gogoan dut bizitza,
zintzotasunez gogoan.
Neguko egunsenti hotzak
goizeko meza laguntzera
joaten nintzenekoak eta
eskolarako kilometroak gero
BH beltzean.
Maiatzeko loreak udaberrian,
Corpuseko barraskiloak
eta ardandegiko ardo zahagiak.
Eta ikasle saiatua
izatearen garrantzia,
zaila,
oraindik ele bakarreko gineneko
egunetan.
Gogoan dut bizitza,
zintzotasunez gogoan udan,
Saltxe erreko amuarrainen
ostadar koloreen distiraz.

(Uztailak 24, 2012)

161

Trenbidearen azpiko zubia.
Azaroko egun hotza.
Elurra ari zuen eta, osaba Antoniorekin,
danbolinean gaztainak erretzen ari ginen.
Gure haur begiek elurra eta suaren berotasuna
irensten zuten.
Trenbidearen azpiko zubia
eta gaztaina erreen usaina.
Bizitza osoa eman dut egun haien bila.
Orduan malkoak, oraindik,
zorian-malkoak izan zitezkeen.

(Irailak 9, 2012)

168
LEGORRETA

Pizarratxoa, eta bertan idazten
ikasi nituen lehenengo letrak,
etxean, lanetik bueltan zetorren aitari,
amak harro erakutsarazten zizkidanak,
hizkuntza arrotzean idatzita egon arren.
Eta batuketak, kenketak, eta biderketaren taulak,
"uno por uno..." kantuan ikasitakoak.
Askotan pentsatu dut udako ilunabar epeletan
belarditik etxera itzultzen ziren baserritarrek
noraino ote zekizkiten arau haiek guztiak.
Ea nahiago zuten, nik bezala,
pilota tokian eta errekan ematea orduak,
guztiok antzeko ispilu hilezkorretan
josi ditugula gure ametsak
jakinaren gainean.

(Irailak 13, 2012)

94

Neguko gauetan askotan jotzen dut harmonika bordan,
suari begira, nire herriko pagoek, txolarreek eta garoak
-pobrea bada ere-
doinurik izan dezaten.
Orain konturatzen naiz aberri baten bila ibili
besterik ez dudala egiten,
beti zerbaiten errudun direla pentsatzen dutenek bezala,
gure bihotzaren martiritza bigunduko duen
edertasunaren atzetik.

(Maiatzak 24, 2012)



URRUTIKO LUR HAUEK

Patxi Ezkiagari, bihotzez

Ekaitz eta Irati GOIKOETXEA
2017-03-19



Urruti
non da urruti?
Han da urruti.

Atzo da urruti
denboraren ihesbideetan inoiz ez
inon ez da urruti.

Urruti da hemen
gertu sentitzeko eguzkiak falta bazaizkigu.
Urruti da orain
isiltasunak sortzeko hitzak falta bazaizkigu.

Baina, batez ere...
Batez ere
urruti da neure burua
neure begiei atera nien argazkien bilduma betazalen ispilu bihurtu denetik
Batez ere urruti da neure burua.

Orain igerian ikasi behar dut
izan ere,
izan ere itsasargia urruti dago
orain gertu, orain urruti
orain gertu
orain urruti
itsasoa laino dago Baionako barraraino, nik zu zaitut maiteago...

Lurra, lu-rra, lurra, lu-rra, lurra
Oi lur, oi lur, oi ene lur nereaa...

Oinpeak fosildu zaizkigu eta
dinosaurioak behatz arteetan kukuka sumatzen ditugu galdutako lur eske.
Eta masusta berdeak
(euren burua nola gorritu behar zuten ahaztu zutenak)
eta masusta berdeak ematen dizkiegu aseko badira.

Lurrak ditu behinola beharrezko genituen ordulariak
Tik-tak, tik-tak, tik-tak, tik-tak
Lurrak ditu behinola beharrezko genituen ordulariak

Denbora gose da
baina ez dago nahikoa masusta eternitatearentzat.
Horregatik hasi da denbora poemak bazkatzen
eta lur gero eta potobagoaren masailetan
hartzen du jatekorik ez duenean atseden.



*Hauek Hau-ek Hauek Hau-ek
Hauts hauek dira zure magia,
hitz hauek zure altxor.
Begi hauetan aurkituko dituzu esku hauek
eta haizeak
haizeak-haizeak-haizeak-haizeak
eta haizeak ez ote ditu bihotz hauek eramango.*

*Ez dago urrutira joan beharrik (beharrik-beharrik-beharrik-beharrik)
ez dago urrutira joan beharrik
lur hauek gure egiteko,
zu maitatzen ikasteko,
zure poemetan bihotzak aske sentitzen ditugula sinesteko.
Patxi, eskerrik aska.*

*Nola irudimenak
gaua oroitzapen,
hitzak zauria salmo
bihurtu dezakeen,
urrutiko lur hauek
samurtu gaitzaten,
segi liburu edo
paper-mutur baten
gure atsedinari
atsegin ematen.*





*Sinetsi eta izan uste on,
orainak egiten gaitu*

La  **Salle**

GURE HEZKUNTZA SAREA EUSKAL HERRIAN

Andoain - Beasain - Donostia La Salle - Donostia San Luis

Eibar Azitain - Eibar Isasi - Irungo La Salle - Zarautz - Zumarraga

Bilbo La Salle - Bilbo Elkarbanatuz - Sestao Andra Mari - Sestao Artizar